

Euskara
Ondorioak eta proposamenak
2001eko urriaren 11n

1. EUSKARA SAREAN

Euskaldunak gutxi dira: eguneroko zereginetan eta bizitza afektiboan euskara darabiltenen hizkuntza komunitatea ez da handia, ez behintzat Interneten merkatu gisa (ez produktu edo zerbitzuen kontsumitzaile gisa, ez bitarteko teknologikoen erabiltzaile gisa) erakargarri izateko behar hainbat handia. Etorkizunean egoera horretan jarraituko dugu, ziurrenik.

Euskarazko edukiak oso geldo ari dira sareratzen, eta euskal gizarteak oro har aro digitalari buruz dituen eragozpen eta oztopo guztiak pairatzen ditu.

Geldotasun horren erakusle izan daitezke, besteak beste, herri aldizkari eta hedabideak (euskararen erabileraren alde lanean ari diren sektore guztietan sortzaileena) eta erakunde akademikoak.

Hala eta guztiz ere, jokabide sozial batzuk ikustea aski da ohartzeko euskara dakiten eta erabiltzen dutenek, batik bat gazte jendeak, batez bestekoa baino gehiago erabiltzen dituztela informazio eta komunikazio teknologia berriak (IKTB). Bi arrazoi dira baieztapen horren euskarri: alde batetik, euskaldun gazteen heziketa eta kultur maila nabarmena da, beraz oso litekeena da IKTBen erabiltzaile izatea; bestetik, euskarazko posta zerrendak asko ugaritu dira azken aldi honetan.

2. EUSKARA SUSTATZEKO BIDEAK IKTBetan

Euskaldun jantzi oro –eta IKTBen erabiltzaile guztiak halakoak dira– sarean nagusi diren hizkuntza bat gutxienez, edo bi, ulertzeko gauza da (ingelese, gaztelera edo frantsesa). Ondorioz, merkatuaren ikuspegia besterik ez daukan gehiengoaren begietara, gurea bezain txikia den hizkuntza IKTBetan erabiltzen laguntzeko ahaleginik egiteko inolako beharrik ez dago.

Beraz, euskaldunok gero eta gehiago Telepolis-en bizi eta lan egitea nahi badugu, aurrerabidea geuk egin beharko dugu –euskaldunok, alegia–, geure bitarteko soilak erabilia.

Ofimatikako eta Interneteko tresna informatiko hedatuenak (batez ere, Microsoft etxeak) euskaraz izateko ahaleginek huts egin dute, herri erakundeek babesa eta diru hornidura izan duten arren. Aro berrian, informatika eta software produktuak hain bizkor sortu, garatu eta hiltzen dira, ezen hizkuntza komunitate txikiok nekez egon gaitezkeen egunean: ahalegin handiz egindako produktuak zaharkiturik gelditzen dira berehala.

Egunean egoteko giza ahalegina bideragarria izanik ere, ongi aztertu behar dugu zer eman behar izan dugun eta izango dugun ordainetan.

Guretzat hautabide bideragarria izan daiteke kode irekia, hau da, oinarrizko tresna informatikoak (sistema eragileak, web diseinurako tresnak, Interneten datuak hedatzeko lanabesak, informatika programak euskaratu eta etxekotzeko tresnak...) Interneteko komunitateak modu boluntarioan eta, gehienetan, doan eginak.

Itxuraz sineskeria dirudien arren, bide hori guztiz egiazkoa eta erabilgarria da gaur egun. Froga argia da, besteak beste, Unescok kode irekiko programak sustatu eta zabaltzeko antolatu duen programa, diru bide handirik ez duten pertsona eta herrialdeek informazio gizartean parte hartzerik izan dezaten.

Hautabide horrek esan nahi du gauzak ez direla ikuspegi komertzial hutsez egiten, beraz herri erakundeek partaidetza eta babesa erraz uler daiteke, kode irekiko programek gure gizartean bete dezaketenez zerbitzu publikoaren ikuspegiaren barruan.

Euskararen mundutik, badira ahalegin batzuk bide horretan eginak (Code&Syntax, Bageranet), aintzat hartu beharrekoak inolaz ere.

3. TXIKIAREN INDARRA

Gure mugak handiak direla onartuta ere, IKTBen ikuspegitik badugu zer azterturik hizkuntza komunitate txikia izanda eskuetaratu ditzakegun aukera berriez.

Esate baterako: ingelesez, gazteleraz edo frantsesez idatziriko literatura guztia digitalizatzeak ia ezinezko lana dirudi. Aldiz, euskaraz 1950a bitarte

argitaratutako testu guztiak formatu digitalean izatea denbora, ahalegin eta diru behar ez hain handiko langintza izan daiteke.

Beste horrenbeste esan daiteke euskaraz egiten den ikerkuntza akademikoaren gainean. Euskaraz aurkeztutako lizentziatura tesina guztiak eta doktoretza tesi guztiak sarean izatea ez da, ziur asko, lan erraldoia. Trukean, ikerkuntzan ari den komunitate akademikoari gordailu ikaragarria emango lioke, esparru horretan jarduera eta bizkortasun handiagoa sortzen lagunduko lukeena ziur asko.

IKTBen bitartez informazioa banatzen duten hedabideak esku bakarreko hatzez kontatu daitezke (Egunkaria, EITB, Argia eta ezer asko gehiagorik ez). Hedabideon arteko lankidetzak sustatu daitezke, formula multimedia baten bidez.

4. PROPOSAMENAK

IKTBen erabilera gizarterako ardura duten erakundeek, batez ere herri erakundeek, aintzat hartu behar lukete Internetek duen ahalmen teknologikoa (batik bat, kode irekiko programak sortu eta banatzeko) euskararen eta euskal kulturaren alde erabili ahal izateko bidea errazteko eginkizuna.

Euskaraz XX. mendearen erdira arte argitaratutako testu guztiak era digitalean jartzea lan egingarria da, behar diren bitartekoak eta denbora begiz jotzen baditugu.

Informazio orokorra IKTBen bitartez banatzen duten hedabideak gutxi direnez (Egunkaria, EITB, Argia), lankidetzak formulak frogatu behar dira, euskarazko informazio atari bat sortze aldera, iturri anitzetako eduki multimediaz osatua, eta informazio orokorrari informazio lokala ere gehituko liokeena.

Hezkuntzan eta esparru akademikoetan, gure unibertsitateek orain arte izan duten jokabidea aldatu behar dute, bide koherente eta eragingarriagoa hartuz, haien mende garatzen diren euskarazko edukiak IKTBen bitartez errazago eta azkarrago hedatzeko. Zehazkiago, Donostiako Campuseko Informatika Fakultatearekiko lankidetzak instituzionala bideratu behar litzateke.

Halaber, herri erakundeek oro har lankidetzak bideak zabaldu behar lituzkete esparru honetan, gure herrialdeko unibertsitateekin.

Euskara sarearen bidez ikasteko aukerak garatu eta indartu behar dira, era horretan euskara gure mugetatik kanpora ateratzen laguntzen baita.

Azkenik, euskarazko testuak audio bitartez entzuteko aukerak garatzea ere garrantzizkoa da IKTBen bitartez euskara sustatzeko.

5. IKUSPEGI ESTRATEGIKOAK

IKTBetan euskarazko edukiak ugaritu eta indartzeko biderik egokiena da edukiok hedatzeko bidea erraztuko duten bitartekoak eta tresna teknologikoak eskura izatea.

Euskal Herriko herri erakundeek berandu gabe antolatu eta aintzat hartu behar dute euskarazko edukiak IKTBetan ugaritzeko programa argi bat, orain arteko ekintza sakabanatuak koordinatu eta bateratuko dituen.

Lehentasunezko babesa eman behar zaio informazioa euskaraz hedatzeari IKTBen bitartez, batik bat informazio lokalaren esparruan, hor garapen handi samarra izateko aukera errazak baitaude.

Herri erakundeek harreman estuagoa izan behar lukete IKTBetan euskara gehiago erabiltzeko erraztearren tresna egokiak sortzeko gai diren agenteekiko, gero tresna horiek komunitateen esku egongo direla ziurtaturik.